

Heriotzek behera egin dute 2006ko bigarren hiruhilekoan

2006ko apirilean, maiatzean eta ekainean 4.128 biztanle hil ziren; horietatik %53 gizonezkoak izan ziren eta %47 emakumezkoak

Eustatek landutako datuen arabera, 2006ko bigarren hiruhilekoan 4.128 heriotza izan ziren, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %5,6 gutxiago. Lurraldez lurralde, Araban 490 lagun hil ziren, Bizkaian 2.268, eta Gipuzkoan 1.370.

Heriotzen kausa nagusia tumoreak izan ziren: tumoreengatik 1.285 pertsona hil ziren (%31,1). Heriotzen bigarren kausa nagusia zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren eta 1.256 pertsonen heriotza eragin zuten (%30,4). Hirugarren tokian arnas aparatuko gaixotasunak daude; 365 heriotza eragin zituzten (%8,8).

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak (%38,4) hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (%25,8) baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak (%35,6) izan ziren, eta tumoreak (%23) bigarren.

2006ko bigarren hiruhilekoan izandako heriotzen artean, 22 heriotza urtebetetik beheragoko umeei egokitu zitzairen: 6 mutikori eta 16 neskatori.

Euskal AEko 2006ko bigarren hiruhilekoaren hazkunde begetatiboa positiboa izan zen eta 858 biztanle irabazi ziren. Saldoak positiboak izan ziren hiru lurraldeetan: Araban 246koa, Bizkaian 268koa eta Gipuzkoan 344koa.

1. taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa.

	2006ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2006ko 1.hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2005eko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.128	100,0	4.922	100,0	4.373	100,0
Gizonezkoak	2.187	53,0	2.574	52,3	2.332	53,3
Emakumezkoak	1.941	47,0	2.348	47,7	2.041	46,7
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.128		4.922		4.373	
Tumoreak	1.285	31,1	1.369	27,8	1.288	29,5
Zirkulazio-aparatua	1.256	30,4	1.545	31,4	1.298	29,7
Arnas aparatua	365	8,8	542	11,0	443	10,1
Txegoste-sistema	212	5,1	242	4,9	231	5,3
Istripuak	145	3,5	144	2,9	168	3,8
Gainerako gaixotasunak	865	21,0	1.080	21,9	945	21,6
GIZONEZKOAK	2.187		2.574		2.332	
Tumoreak	839	38,4	895	34,8	827	35,5
Zirkulazio-aparatua	565	25,8	731	28,4	612	26,2
Arnas aparatua	204	9,3	307	11,9	267	11,4
Txegoste-sistema	115	5,3	144	5,6	126	5,4
Istripuak	100	4,6	103	4,0	118	5,1
Gainerako gaixotasunak	364	16,6	394	15,3	382	16,4
EMAKUMEZKOAK	1.941		2.348		2.041	
Tumoreak	446	23,0	474	20,2	461	22,6
Zirkulazio-aparatua	691	35,6	814	34,7	686	33,6
Arnas aparatua	161	8,3	235	10,0	176	8,6
Txegoste-sistema	97	5,0	98	4,2	105	5,1
Istripuak	45	2,3	41	1,7	50	2,4
Gainerako gaixotasunak	501	25,8	686	29,2	563	27,6

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Banco de datos: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp